

# GOIERRIKO GIZARTE ETA ESKUALDE KOHESIOA HOBETZEKO EGITASMOA

Goieki Goierriko Garapen Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzari esker eta eskualdeko hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri duen 'Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuak, pertsonari egokituak: enpleguari buruzko prestakuntza' proiektuaren helburua da Goierriko gizarte eta eskualde kohesioa hobetzea.

**G**oieki Goierriko Garapen Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzari esker eta eskualdeko hainbat eragilerekin elkarlanean abian jarri duen *Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuak, pertsonari egokituak: enpleguari buruzko prestakuntza* proiektuaren bidez, Goierriko (Gipuzkoa) gizarte eta eskualde kohesioa hobetu nahi da, pertsona guztien enplegarritasuna hobetuz, salbuespenik gabe.

Izan ere, egoera ahuletan edo behartsuetan dauden pertsonen kualifikazioa hobetzea bultzatu nahi da, identifikatutako kolektibo horien –batez ere gazte eta atzerritarren– arraila eta gizarte-bazterketa ekidinez. Goiekiren ikuspegitik, pertsona bakoitzaren gaitasunetara egokitutako irtenbideak eta alternatibak eskaini behar dira, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden kolektibo horiek gizarteratu eta laneratzeko.

## GIZARTE KOHESIOA

Eskualdean burutu diren azken lan merkatu azterketak gainbegiraturaz gero, deigarria da langabezian dagoen gehiengoaren profila eta burutu diren kontratazioen arteko hutsuneak. Goierri bailaran, langabezia tasa baxua den arren, 7,70%, bertako kolektibo oso urrun topatzen da lan munduak eskatzen dituen profiletatik. Langabeen multzo handienak pilatzen dituen ezaugarriak hurrengoak dira gaur egun: 45 urtetik gorakoa, zerbitzu sektorean lan egiteko interesarekin eta lehen mailako ikasketak soilik amaituak dituenak. Aldiz, azken hiruhilekoan kontratuen %53 industria sektoreak gauzatu ditu, eta goi mailako ikasketak dituzten pertsonak hautatzen dituzte.

Beraz, lan gabe dauden pertsonen lan munduan integratzeko helburuarekin jarri da martxan



Lorezaintza ikastaroko bi parte hartzaile, ikastaroko praktikak burutzen. GOIEKI

*Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuak, pertsonari egokituak: enpleguari buruzko prestakuntza* proiektua.

## ZERBITZU ANITZAK

Proiektuaren barruan hainbat prestakuntza programa eta zerbitzu eskaintzen dira:

• **Lorezaintza formakuntza:** Dagoeneko amaitu berri da lorezaintzan burututako prestakuntza. Zizurkilgo Fraisoro eskolan (Gipuzkoa) arlo teknikoa ikasteaz gain, Ordiziako Goierri Eskolan kompetentzia digitalen modulu bat burutu dute, baita zeharkako hainbat kompetentzia landu. «Amaieran jasotako emaitza positiboek aurrera egitea bultzatzen digute», Goiekiko arduradunen hitzetan.

Horrela, lan munduan langabe gehiago integratzeko helburuarekin, hurrengo hilabeteetan zehar alor ezberdinetako beste bi formakuntza tailer jarriko dira martxan.

• **Ehunezko eta larruzko arropa artikuluen konponketa ikastarora:** Alde batetik, ehunezko eta larruzko arropa artikuluen konponketa egongo da, non Sarea Fundazioak (Caritas) zuzenduko duen arlo teknikoa. Bertan, ehungintza hobby bezala duten pertsonen haien aisialdiko lanak haien ofizio bilakatzeko aukera emango zaie, lan zentzu industrialago batera bideratuz eta enpresen errealitatera egokituz. Urriko lehen astean emango diote hasiera proiektuari eta martxo bitarte ibiliko dira ehungintzarako modulu ezberdinak lantzen.

Prestakuntza programa honetan hainbat moduluren bidez ehungintza industrialera bideratutako gaitasunak eskuratuko dituzte. Ehunezko eta larruzko artikuluen konpondu eta moldatzen ikasiko dute, jantzigintzako materialak, erremintak eta ekipoa prestatzen, arropa eta etxeko arropa konpontzen. Gainera egokitzapenak nola egin eta jantziak

nola pertsonalizatzen diren ikusiko dute, eta azkenik zerbitzuetan bezeroari arreta emateko jakintzak bereganatuko dituzte. Formakuntza honen baitan partaideak guztira 390 orduko lanketa egingo dute beren profil profesionala garatuz. Azken hilabeteetan ikasitako guztia enpresetan nola aplikatzen den ikusteko aukera izango dute, partaide guztiak 4-6 astez enpresa ezberdinetan praktikak egiteko aukera izango dituztelako.

• **Gainazalak eta altzariak garbitzeko prestakuntza:** Bestalde, gainazalak eta altzariak garbitzeko prestakuntza ere abiaraziko da. Formakuntza hau Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak homologatua duen lehen mailako ziurtagiri profesional bat da, Gurutze Gorriak koordinatuko duena. Ehungintzari buruzko formakuntzaren antzeko metodologiari jarraituko dio eta hainbat modulu ezberdinez osatua izango da. Eraikin eta lokaletan gainazalak

eta altzariak garbitzen modulu emango dute, eta, horrekin batera, zeharkako gaitasun ezberdinak landuko dituzte. Hizkuntza prestakuntzarekin hasiko dira, eta ikastaroan zehar enplegurako oinarriko gaitasun digitalak lantzen joango dira. Behin formakuntza teorikoa bukatu ondoren, gaitasun soziolaboralak landuko dituzte ondoren egingo duten lanketarako erabilgarria izango dena. Parte hartzen duten pertsonak 80 orduz eskualdeko enpresa ezberdinetan praktikak egingo dituzte, ikasitako guztia lantzeko.

Aurretik aipatutako oinarriko ikasketak dituzten pertsonen artean asko zabaltzen dizkie titulu horrek. Izan ere, euskal hezkuntza sisteman, titulu hori eskuratuta, erdi mailako ikasketetan sarbidea izango dute, ikasten jarraitu nahi dutenentzat. Eta, bestetik, lan munduan ziurtagiri hori izateak ere asko laguntzen du lana topatzeko garaian.

• **Jarraipen pertsonalizatua:** Orain arte lortutako emaitzen arrakasta, uneoro pertsona erdigunean jartzearen ondorio da. Jarraipen bilerak egiten dira, pertsonen beharrak gertutik ezagutu eta dituzten aukera guztiak aurkezten zaizkie, beren egunerokotasunean erabilgarri eta aberasgarri izan behar zaizkienak.

Aukera horien artean gaur egun lanketa irekia duten bi programa daude. Alde batetik, Emaktiva programa dago, emakumeentzat bideratutako lan-aktibazio programatikoa bat da, enplegua bilatzen espezializatutako ibilbideak garatzen laguntza eta orientazioa eskaintzen dutena. Bestetik, abenduan zehar Goierri Eskolak bigarren mailako kompetentzien ikastaroa eskainiko du identifikatutako pertsonen profil profesionala garatzea helburu duena.



Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: [www.goierri.eus](http://www.goierri.eus)